

Euskal AEko BPGk urte arteko %0,6ko murrizketa izan zuen 2010eko lehenengo hiruhilekoan


Aurreko hiruhilekoaren aldean hazkundera positiboa da, %0,1

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko ekonomiak sortutako BPGk %0,6ko murrizketa izan du 2010eko lehen hiruhilekoan, 2009ko aldi beraren aldean. Tasa hau hobea da –puntu bat eta bederatzi hamarrenez- aurreko hiruhilekoaren aldean.

Espainiako ekonomiarako datua %-1,3 izan da; 27-Europar Batasunerako %0,3, Euro-16 zonalderako %0,5 eta %2,5 Estatu Batuetarako.

Aurreko hiruhilekoaren aldean Euskal AEko BPGk %0,1eko hazkundera izan zuen; hiruhilekoen arteko bigarren datu positiboa da, tasa negatiboak lau hiruhilekotan eduki baitira, jarraian. Hiruhileko arteko aldakuntza hori %0,1 izan da Espainiako ekonomian, %0,2 27-EBn eta Euro eremuan, eta %0,8 AEBn.

1. grafikoa. BPG m/p. Urte arteko hazkunde-tasak. (%)



Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak.
INE eta Eurostat

Eskaintzaren aldetik, sektore guztiek, zerbitzuek izan ezik, hazkunde-tasa negatiboak izan dituzte; BPGren urte arteko bilakaeraren hobekuntza eta aurreko hiruhilekoaren aldeko hazkundera merkatu-zerbitzuei esker izan da.

1. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak

	2008	2009	2009				2010
			I	II	III	IV	
Nekazaritza eta arrantza	0,5	2,1	12,5	7,9	-0,9	-10,2	-19,5
Industria	-0,5	-9,5	-10,0	-10,3	-11,6	-5,9	-1,6
Eraikuntza	-1,1	-5,7	-5,5	-6,4	-6,2	-4,8	-6,5
Zerbitzuak	3,5	-0,1	0,8	-0,3	-0,4	-0,6	0,7
Produktuen gaineko zerga garbiak	1,8	-3,4	-3,6	-4,0	-3,8	-2,3	0,0
BPGda merkatuko preziotan	1,9	-3,3	-2,8	-3,7	-4,1	-2,5	-0,6

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Lehen sektoreak %19,5eko murrizketa du 2009ko hiruhileko beraren aldean, eta %4,6ko hiruhilekoen arteko bilakaera negatiboa.

Industriaren urte arteko emaitza (%-1,6) lehen hiruhileko honetan, hobe da aurrekoan (%-5,9) baino, baina ez da hiruhilekoen arteko emaitza positiboa sortzeko behar adinakoa, ez dio eusten aurreko hiruhilekoan lortutako hazkundeari. Industriaren jaisiera lehen hiruhileko honetan, aurrekoaren aldean %0,3 da. Bilakaera honek isla izan du sektorearen enpleguan.

2. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak

	2009				2010
	I	II	III	IV	
Nekazaritza eta arrantza	6,4	-10,7	-7,6	2,4	-4,6
Industria	-4,8	-1,5	-0,1	0,5	-0,3
Eraikuntza	-2,0	-1,3	-0,9	-0,7	-3,7
Zerbitzuak	-1,2	0,0	0,3	0,3	0,1
Produktuen gaineko zerga garbiak	-2,1	-0,2	-1,2	1,1	0,2
BPGda merkatuko preziotan	-1,8	-0,9	-0,1	0,2	0,1

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Eraikuntzan handiagoa da jarduera-murrizketa. Bai urte arteko tasa (%-6,5), bai hiruhilekoen artekoa (%-3,7) aurreko hiruhilekokoaren azpitik daude; izan ere, aurrekoan hobekuntza apala izan genuen. Industrian bezala, egoerak enpleguari eragin dio.

Zerbitzuen sektoreko bilakaera globalean ibilbidea hobe da gainerakoetan baino; bai urte artekoa (%0,7), bai hiruhilekoen artekoa (%0,1) positiboak dira. 2009ko lehen hiruhilekoaren aldean, puntu bat eta hiru hamarreneko hobekuntza dugu; aurreko hiruhilekoaren aldean hiruhilekoen arteko tasa bi hamarren txikiagoa da, positiboa bada ere.

Merkatuko Zerbitzuek urte arteko (%0,6) eta hiruhileko arteko (%0,1) tasa positiboak dauzkate; aurreko hiruhilekoaren aldeko hazkundera apalagoa izan da 2009ko azken hiruhilekoan izandakoa baino.

Ez-merkatuko zerbitzuak, berriz, apaldu egin dira; urte arteko hazkundera %1,3 izan da, eta hiruhilekoen artekoa %0,4 negatiboa. Tasa negatiboa duen bigarren hiruhilekoa da, jarraian.

Eskariaren aldetiko bilakaeran esanahitsuena Barne eskariaren hobekuntza erlatiboa da; urte artekoan, 2009ko laugarren hiruhilekoko %-3,2tik 2010eko lehenengoko %-1,5era joan da. Hiruhilekoen artekoan, aurreko %0,2tik %0,1era etorri da.

3. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak

	2008	2009	2009				2010
			I	II	III	IV	I
Etzeguneen azken kontosumoko gastua	1,6	-3,8	-3,7	-4,6	-4,3	-2,6	-0,6
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	4,8	3,2	4,2	3,4	2,6	2,5	0,5
Kapital-eraketa gordina	0,5	-8,3	-7,5	-9,4	-8,8	-7,5	-4,7
Barne-eskaria	1,8	-4,0	-3,6	-4,7	-4,5	-3,2	-1,5
Guztizko esportazioak	4,1	-14,4	-13,1	-16,6	-16,1	-11,7	-1,7
Guztizko inportazioak	3,8	-14,7	-13,7	-17,1	-15,5	-12,1	-3,5
BPGda merkatuko preziotan	1,9	-3,3	-2,8	-3,7	-4,1	-2,5	-0,6

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Familia-etxeen Azken Kontsumoan (Kontsumo Pribatua) bada bizkortze-zantzurik: urte arteko jaitsiera %0,6 izan da, aurreko hiruhilekoan baino bi puntu apalagoa. Hiruhilekoen arteko tasa negatiboak bost aldiz eduki ondoren, Familia-etxeetako kontsumoak %0,6 positiboa izan du aurrekoaren aldean, bigarren aldiz jarraian, eta horrek Eskariaren aldetiko BPGren jokaera positiboa ekarri du.

Kontsumo Publikoan atonia da nagusi: urte arteko hazkundera %0,5 eta, hiruhilekoen artekoa %-1,8, 7 hiruhilekoz jarraian igoerak izan ondoren.

Kapital Eraketa Gordinaren (Inbertsioa) bilakaera Eraikuntzak eta Ekipo-ondasunek erabakitzen dute. Bilakaeren bat-egitearen ondorioz, areagotu egiten da hiruhilekoen arteko jaitsiera (%-1,4). Urte artekoan, eta tasak ez badira ere 2009 urtean zehar edukitakoak bezain negatiboak, eskariaren aldetiko erregistrorik txarrena du, %-4,7.

4. taula. BPG m / p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak

	2009				2010
	I	II	III	IV	I
Etxeguneen azken kontosumoko gastua	-1,5	-0,9	-0,7	0,5	0,6
Herri-administrazioen azken kontosumoko gastua	0,1	0,1	2,0	0,4	-1,8
Kapital-eraketa gordina	-4,3	-2,9	-0,3	-0,1	-1,4
Barne-eskaria	-1,7	-1,4	-0,3	0,2	0,1
Guztizko esportazioak	-7,4	-3,5	1,4	-2,5	3,1
Guztizko inportazioak	-5,2	-5,4	1,2	-3,3	4,1
BPGda merkatuko preziotan	-1,8	-0,9	-0,1	0,2	0,1

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Kanpo-sektoreak jokaera hobea izan du. 2009an %15eko urte arteko jaitsierak izan ziren, batez beste, salerosketen bolumenean. Hor, dezenteko bizkortzea izan da, tasak negatiboak badira ere oraindik. Esportazioetan %1,7ko jaitsiera dago, eta %3,5ekoa inportazioetan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Kanpo-salerosketekiko hobekuntza erlatibo hori aurreko hiruhilekoaren aldeko tasa positiboetan ere igartzen da: esportazioak %3,1 hazi dira eta inportazioak %4,1.

Pertsonal okupatua %0,9z murriztu da aurreko hiruhilekoaren aldean, eta %1,9z 2009ko aldi beraren aldean. Aurreko hiruhilekoko batezbestekoaren aldean, zortzi mila eta bostehun bat enplegu garbi galdu dira. Hiruhileko honetako aurrekoaren aldeko enplegu-galerak sektore guztiei eragin die, baina batez ere Industriari eta Eraikuntzari. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, murrizketa 18.594 lanpostutakoa izan da.

BPGren bilakaera herrialdeka ikusiz gero, Araba ibili da hoberen, hiruhilekoen arteko tasetan %0,4 hazi da; Bizkaian eta Gipuzkoan aldaketarik ez (%0,0) aurreko hiruhilekoaren aldean. Urte artekoan, Gipuzkoan hazkundera positiboa da, Araban eta Bizkaian negatiboak dira, baina 2009ko laugarren hiruhilekokoak baino hobeak.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Javier Aramburu

Tel:+34-945-01 75 80 Faxa:+34-945-01 75 01

[Hiruhileroko kontu ekonomikoren gainerako prentsa-ohar gehiago](#)

[Hiruhileroko Kontu Ekonomikoen gainerako datu-bankua](#)